

DIRU-ITURRIAK



Kostuak aztertu ondoren, hainbat gauza berriro planteatu ditugu sarrerei dagokienez. Diru-sarrerak hilerok kalkulatu ditugu, hilabete bakoitzean bezero eta hitzaldi kopuru desberdinak ditugulako.

Gure aplikazioa doakoa izaten jarraituko du erabiltzaile indibidualentzat, baina enpresek kuota bat ordaindu beharko dute aplikazioa erabiltzeagatik, lehen aipatu dugun bezala. Modu horretan, gure diru-sarrerak handitu egingo dira, kostuei aurre egiteko.



Horrez gain, hitzaldi mota gehiago antolatuko ditugu bezero gehiagorengana iristeko eta diru-sarrerak handitzeko. Premium edukia mantenduko dugu, aplikazioaren barruan ordaindu beharreko atalak eskainiz. Azkenik, hainbat enpresa publizitatuko ditugu gure aplikazioan, diru kopuru baten truke.

Hori guztia kontuan hartuta, hauek izango dira gure diru-sarreraren iturriak. Hasieran, kostuak diru-sarrerak baino askoz handiagoak dira; hala ere, urtea aurrera joan ahala, diru-sarrerak handitzen joango dira, kostuak murriztearekin batera.